

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Parisko atentatu terrorista gaitzetsi du eta biktimei nahiz Frantziako gizarte guztiari bere elkartasuna adierazi die

Barcina Lehendakaria enbaxadore frantsesarekin harremanetan jarri da gutun bidez mezu hori helarazteko

Jueves, 08 de enero de 2015

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak gutun bat igorri dio enbaxadore frantses Jérôme Bonnafont-i. Gutun horren bidez, Nafarroako Gobernuak atzo, asteazkena, Charlie Hebdo astekariaren aurka egindako atentatu terrorista gaitzesten duen mezua helarazi dio. Atentatu horren ondorioz, 12 pertsona hil dira, gutxienez



Nafarroako Jauregia, Gobernuaren egoitza.

Erabateko gaitzespenarekin batera, Lehendakariak, Nafarroako gizartearen izenean, elkartasuna adierazi die biktimei eta haien familiei, hedabide frantsesei eta, finean, Frantziako gizarte guztiari, "indar eta amore handia erakutsi duena Parisko sarraskiaren gaitzespenean eta demokraziaren nahiz legearen aldeko apustuan, halako krimen ankerrak berriz gerta ez daitezen".

Foru Gobernuak adierazi duenez, "gaur inoiz baino gehiago beharrezkoa da demokraziaren eta askatasun zibilen balioa aldarrikatzea, adierazpen-askatasuna esaterako, herrialde askeak garatu eta aurrera egin dezaten, Frantziak adibidez, terroristen mehatxuen aurrean ezin direnak kikildu eta XXI. mendean lekurik ez duten gorroto-mezu eta totalitarismoen emaitza baino ez direnak".